

KONFIDANTZADUNAK ETA BAIKORRAK

Nafarroako lurralde okupatuetatik (2000.12.12)

Asmo oneko hiritarrak, gure futbol selekzioak, nahiz beste kirol motek, Nafarroa ordezkatzuz nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte har dezaten lanean dihardute. (Benetako nahia hori dela uste dugu, nahiz eta erabilitako terminologia oso argia ez den). Ez dugu pentsatzen horrelako helburu bat ezin denik lortu lehen mailako lorpen politikorik gabe (badira hau ezeztatzen duten kasu batzuk), baina argi eduki behar dugu non gauden, eta nor dugun aurrean. Hona hemen adibide bat: Europako surf federazioak, euskal federazioa kanporatu du, federazioa espainiarraren onerako. Beraz, nafar surflariek ez dute ez aukerarik, ez eskubiderik nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko.

Dena dela, batzuen baikortasuna ostrukarena baino inkontzienteagoa da. Eusko Jaurlaritza deituriko kirol zuzendariak bere konfidantza osoa agertu du, (zenbat kostatzen zaigu hilero konfidantza hori mantentzea ?) "luzera begira irabaziko dugu, gaizki egin baitute, eta epaiketak luzeak dira, baina laburrera oso zaila dugu".

Argi dago konfidantza, izan baduela..., gehiegi beharbada.